

DIRU-ITURRIAK

·Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago zuen bezeroa eskaintzen ari zareten produktuaren edo zerbitzuaren truke?

Gure bezero nagusia gazte helduak dira (jai giroa, kontzertuak edo ekitaldiak), eta erosotasuna eta prezioa baloratzen dituzte. Beraz, 2 eta 3 euro artean ordaintzeko prest egongo lirateke lata bakoitzeko, kalitate onekoa bada eta marka fidagarria bada.

Ordaintzeko moduei dagokienez, bezeroak prest daude ordainketa azkarrak erabiltzera: txartelarekin, mugikorrarekin edo aplikazio digitalen bidez. Baita eskudiruarekin ere. Gainera, promozioak (pack-ak, deskontuak ekitaldietan) egonez gero, erosteko joera handiagoa izango lukete.

Laburbilduz, bezeroak prezio eskuragarri baina justua espero du, eta erosotasuna eta azkartasuna funtsezkoak dira ordainketa egiteko orduan.